

A group of children and an adult are gathered around a wooden frame made of logs, looking out over a body of water. The children are wearing jackets and hats, suggesting a cool day. The water is calm and blue.

ESKOLAGUNE

Ekoetxea Txingudi

Lehen urrats berdeak: Sentsazioak ezagutuz

Haur Hezkuntza (5 urtetik aurrera)

ARLOA/IKASGAIA: Ingurunea ezagutzea eta esploratzea

Eta naturaren zaintza irakasteko modurik onena hura bizitzea balitz? Naturarekin harreman zuzena izatea eskaini daitekeen esperientziarik baliotsuenetako bat da.

Haurrak benetako esploratzaile bihurtzen diren esperientzia batera gonbidatzen zaituztegu: hezegunearen usaina, hegaztien soinua, oinen azpiko lurra, liburu batean jaso ezin daitezkeen esperientziak dira.

Natura gertutik ezagutzen duenak, bizitza osoan zaintzen duelako!